



20/2003 GOMENDIOA, EKAINAREN 24KOA, LASARTE-ORIAKO UDALARI EGINA, HERRI BARRUKO BIDEAK MANTENTZEKO UDAL ZERBITZUEN JARDUERAK ERAGINDAKO ONDARE ERANTZUKIZUNA ONAR DEZAN.

Aurrekariak

1. Kexagilea erori egin zen Buruntza kalean, 2001eko urriaren 3an, eta kale hartako eskaileren egoerari leporatzen zion erorketa.

Horregatik, administrazioaren ondare erantzukizunagatik erreklamazio bat egin zion udal horri, 2001eko urriaren 29an.

2. Udalak burutu zituen jardueretan, bakar-bakarrik agertzen zen kexagilearen eskaera-idazkia, berori aseguru-etxe bati bidali izana, aseguru-etxearen txostena, eta, azkenik, udalak 2002ko apirilaren 8an hartutako Erabakia, kexagilearen eskaera atzera bota zuena; bada, udalaren ustez, ez zegoen udal erantzukizunik, eta aseguru-etxeak bidalitako idazki batean soilik oinarritzen zen hori adierazteko.

3. Arartekoak aurrez zenbait gogoeta helarazi zizkion Lasarte-Oriako udalari herri-administrazioen ondare erantzukizunaren gainean. Erantzukizun horrek ez dauka zerikusirik aseguru-polizaren kontratuarekin, hau da, udalak erantzukizuneko betebeharra betetzeko asmoz sinatu zuenarekin. Administrazioen ondare erantzukizuna zertan oinarritzen den azaldu genion: administrazioak erantzun beharra dauka herritarrek beren ondasun eta eskubideetan jasaten duten lesio guztien aurrean, ezinbesteko egoerak salbuetsiz, betiere lesioa herri-zerbitzuen ohiko edo ohiz kanpoko jardueraren ondorioz gertatu bada.

Kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik baden ala ez ikusteko, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak 142. artikuluan ezarritako prozedura erabili behar da, 429/1993 Errege Dekretuak garatutakoa. Administrazio-prozedurak instrukziozko zenbait egintza erabakigarri izan behar du, administrazio-organo eskudunak erabaki bat hartzeko behar beste elementu izan ditzan.

Hala ere, zertzelada horiek ez ziren kontuan hartu Alkatetzak 2002ko apirilaren 8an hartutako Erabakian. Horregatik, Arartekoak berriro udalari idatzi zion, bi xederekin: batetik, ondare erantzukizunaren alorrean, prozedura 30/1992



Legean eta 429/1993 Errege Dekretuan ezarritakora moldatu behar dela adierazteko, eta, bestetik, 2002ko apirilaren 8ko Erabakiaren gainean zein neurri zeuden aurreikusita jakiteko.

4. Lasarte-Oriako udalak txosten bat igorri zigun, eta hauxe adierazi: bere ustez, espediente hori ez zela prozeduraren arabera bideratu, eta, horregatik, beharrezko agindua eman zuela lege ezarritako prozeduraren arabera bidera zedin. Dena den, bere iritzian, kexagileak ez zuen babesik eza jasan, eta erabakia zuzenbidearen arabera zen.

Gogoetak

1. Kexagilearen nahia zuzenbidearekin bat datorren ala ez aztertzea da espediente honen xedea, bada hark uste du alegatutako kalteak Lasarte-Oriako udalari egotz dakizkiokeela, herri barruko bideak mantentzeko udal zerbitzuaren jarduerak eragin dituelako.

Nolanahi ere, administrazio-erabaki hori legeriaren arabera den egiaztatu beharra dago, hala ikuspegi formalek nola materialek.

2. Horrela, baldin eta azaroaren 26ko 30/1992 Legean -Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa- eta 429/1993 Errege Dekretuan ezarritako arauak bete badira, administrazio-egintza baliozkoa da; bestela -lege horren 62 eta 63. artikuluek diotenez-erabaki bat prozedura erabat bazter utzita hartzen bada, egintzak ez du baliorik izango; edo baliorik gabe utz daiteke, funtsezko akats formal bat badago edo interesdunen babesik eza eragiten badu.

Ildo horretan, administrazio-prozeduran instrukziozko zenbait egintza falta dira, administrazio-organoak dagokion erabakia hartzeko erabakigarriak direnak.

Izan ere, prozedura bideratzen duen organoak egiaztatu egin behar du ea kausalitate-loturarik badagoen zerbitzu publikoaren jardueraren eta kexagileak benetan jasandako lesioaren artean, udal zerbitzuen txostena eta interesdunen alegazioak eta frogak kontuan izanik.

Hori dela-eta, legeriaren guztiz kontrakoa da aseguru-etxearen iritzia arabera ondare erantzukizuna onartzea ala ez onartzea, alegazioak egiteko edo gertakariei buruzko frogak ekartzeko eperik zabaldu gabe.



Ikuspegi formaletik begiratuta, legeriaren aurkakotzat jo behar dugu Alkatetzak 2002ko apirilaren 8an hartutako Erabakia, ez baitu erabili aipatu araudian ezarritako prozedura, eta kexagilea babesik gabe utzi baitu.

3. Administrazioen ondare erantzukizunaren edukiari buruz, administrazioek erantzule izan behar dute herritarrek beren ondasun eta eskubideetan jasaten duten lesio guztien aurrean, ezinbesteko egoerak salbuetsiz, betiere lesioa herri-zerbitzuen ohiko edo ohiz kanpoko jardueraren ondorioz gertatu bada. Honako hauek dira kaltea leporatzeko arrazoiak: udalak ez duela bete kaleak egoera onean mantentzeko duen betebeharra, herritarrak lasai ibil daitezzen; eta, gainera, herritarrak arriskuan jarri dituela, bidean irregulartasunak edo akatsak daudela ohartarazteko seinalerik ipini ez duelako.

Horren gainean, Auzitegi Gorenaren jurisprudenziak ondare erantzukizuna onartu zuen, honako arrazoi hauengatik herritarrei lesioak eragin zitzaizkienean: galtzadan orban bat egoteagatik -Auzitegi Gorenaren Epaia, 2002ko abenduaren 16koa (RJ 2003\583)-; galtzadako estolda bat mantentzeko zerbitzuak oker jarduteagatik -Auzitegi Gorenaren Epaia, 1999ko apirilaren 6koa (RJ 1999\3451)-.

Prozedura bideratzen duen organoak, bere aldetik, txostenak eta kexagileak aurkeztutako frogak bildu behar ditu, eta aztertu behar du ea kausalitate-loturarik badagoen bideak zaintzeko zerbitzuaren eta kexagileak jasandako kalteen artean, eta ea lotura hori behar bezala frogatuta geratu den. Zehazki, aipatutako eskaileretan lurra irristagarria dagoen ala ez egiaztatu behar du, eta, euria eginez gero, oinezkoentzat arriskutsua izan daitekeen.

Bestalde, kexagileak alegatutako egintzak onartzen ez badira, ezinbestekoa da udalak lekukoen froga praktikoa onartzea, horixe baita kexagileak egintzak benetakoak direla eta kaltea udalaren zerbitzu baten jardunak -herri barruko bideak oker mantentzeak- sortu duela erakusteko duen aukera bakarra, batez ere kontuan izanik egintzak ez frogatu izana dela eskabidea ez onartzeko arrazoa.

Horri buruz, aintzat hartzekoa da azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 80.2 artikuluan ezarritakoa -429/1993 Errege Dekretuaren 7. artikulua- gainean-. Hauxe dio hitzez hitz: *"Prozeduraren instrukzio-egileak frogaldia egitea erabaki dezake, administrazioak egiazkotzat jotzen ez baditu*



interesdunek alegatutako egitateak edo hala eskatzen badu prozeduraren izaerak. Frogaldia, gehienez, hogeita hamar egunekoa izango da eta, gutxienez, hamarrekoa, egoki iritzitako froga guztiak egin ahal izan daitezten".

4. Orduan, aurreko gogoetetatik ondorio hau atera behar da: kaltearen eta udal zerbitzuaren jardunaren artean kausalitate-loturarik ba ote zegoen egiaztatzeko prozedurazko izapideak burutu gabe hartu zuela erabaki hura administrazioak, eta kexagilea babesik gabe utzi zuela. Beraz, erabakia deuseztagarritzat jo behar da, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak -Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak- 63. artikuluan dioenari jarraiki.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

20/2003 GOMENDIOA, ekainaren 24koa, Lasarte-Oriako udalari egina

1. Udalak baliorik gabe utzi beharko luke 2002ko apirilaren 8ko Alkatetza Dekretua, Buruntza kaleko eskailerak jaistean erori eta jasandako kalteengatik (...) andreak egindako ondare erantzukizuneko erreklamazioa atzera bota zuena, izan ere, erabakia hartzerakoan, udalak ez zituen bete ezarritako prozedura-arauak: alegia, organo bideratzailea izanik, ez zituen eskatu dagozkion txosten teknikoak, eta ez zituen funtsezko probak egin, alegatutako egintzak benetakoak ziren ala ez egiaztatzeko.
2. Halaber, espedientea erabaki-proposamena egin aurreko aldira itzuli beharko luke, eskatutako lekukoaren froga burutu, eta udal zerbitzuei txosten bat eskatu. Zerbitzu horiek -arrazoi bidez eta modu egokian- adierazi beharko lukete zehazki zein diren egintza horiek eta udalak zer egin duen horren gainean.
3. Gero, beste erabaki bat hartu beharko luke, egiaztatutako egintzak eta haien zergatiak baloratu ondoren.